



JOSU IÑAKI ERKOREKA JOSU IÑAKI ERKOREKA
GERVASIO JAUNAK, EUSKO GERVASIO, CONSEJERO DE
JAURLARITZAKO IDAZKARIA GOBERNANZA PÚBLICA Y
ETA GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBIERNO Y SECRETARIO
AUTOGOBERNUKO SAILBURUAK DEL GOBIERNO VASCO

EGIAZTATZEN DUT:

CERTIFICO:

Eusko Jaurlaritzak, 2019ko apirilaren 2an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 2 de abril de 2019 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ERABAKIA, ZEINAREN BIDEZ JAURLARITZAREN IRITZIA EMATEN BAITA EUSKAL POPULARREN LEGEBILTZAR TALDEAK AURKEZTUTAKO LEGE PROPOSAMENAZ, 2012KO URTARRILAREN 1ETIK GAUR ARTE, ERRETIRO AURRERATUA HARTU DUTEN IRAKASLEEI KALTE-ORDAINA KOBRAZTEKO ETENDURA ALTXATZEARI BURUZKOA.

ACUERDO DE MANIFESTACIÓN DEL CRITERIO DEL GOBIERNO EN RELACIÓN CON LA TOMA EN CONSIDERACIÓN DE LA PROPOSICIÓN DE LEY PRESENTADA POR EL GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO SOBRE EL LEVANTAMIENTO DE LA SUSPENSIÓN DEL COBRO DE INDEMNIZACIÓN POR EL PROFESORADO JUBILADO ANTICIPADAMENTE DESDE EL 1 DE ENERO DE 2012 A LA ACTUALIDAD.

Ikusita Euskal Popularren legebiltzar-taldeak aurkeztu duen lege-proposamena, 2012ko urtarrilaren 1etik gaur arte, erretiro aurreratua hartu duten irakasleei kalte-ordaina kobratzeko etendura altxatzeari buruz, Gobernu Kontseiluak, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuaren proposamena aztertu ondoren, hau onartu du:

Vista la Proposición de Ley presentada por el Grupo Parlamentario Popular Vasco sobre el levantamiento de la suspensión del cobro de indemnización por el profesorado jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2012 a la actualidad, el Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, previa deliberación, adopta el siguiente



ERABAKIA

ACUERDO

“Lehenengoa.- Aipatutako lege proposamena aintzat ez hartzeko iritzia duela adieraztea, ondoko arrazoiak direla-eta:

1.- Lege Proposamena engainagarria da berriaz, izenburuan, aplikazio esparru gisa definitzen duelako honako hau, *“2012ko urtarrilaren 1etik gaur arte, erretiro aurreratua hartu duten irakasleak”*, baina artikuluetan, bere asmoa da autonomia erkidegoko Administrazio langile publikoen kolektibo guztiei buruzko akordio edo hitzarmenetako erretiro boluntarioa sustatzeko baldintzak berreskuratzea.

2.- Lege Proposamenaren argudioa oinarritu egiten da, duela gutxi, administrazioarekiko auzien epaitegiren batek emandako aldeko epai kopuru txikian, eta nahita saihesten du errekurritu egin direla EAEAnko Administrazioarekiko Auzien Salan, hain zuzen ere, Sala horrek berak, erreklamazio berberen kasuan, emandako jurisprudenzia-doktrinaren aurka doazelako.

3.- Lege Proposamenak nahita isiltzen du, erretiro aurreratua eskuratzeari begira, langile publikoen negoziatio kolektiboaren irizpideak markatzen dituzten baldintzei buruz, aurretiaz, egin behar den oinarritzko azterketa konparatua. Langile publiko guztiek ez daukate, 60 urterekin, erretiro aurreratua hartzeko aukera. Aukera hori daukaten langile guztiek ere, erretiro aurreratua hartuz gero, ez dute zenbateko berbera kobratzen.

“Primero.- Manifestar su criterio desfavorable a la toma en consideración de la citada Proposición de Ley por las razones que a continuación se relacionan:

1.- La Proposición de Ley es deliberadamente engañosa porque en su título refiere como ámbito de aplicación *“el profesorado jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2012 hasta la actualidad”* mientras que su articulado persigue recuperar las condiciones para la incentivación de la jubilación voluntaria de todos los acuerdos o convenios relativos a la totalidad de los colectivos de empleados públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

2.- La Proposición de Ley apoya su argumentación sobre la consideración de un reducido número de sentencias favorables, recientemente dictadas por algún juzgado de lo contencioso administrativo, obviando deliberadamente el hecho de que han sido recurridas ante la Sala de lo Contencioso del TSJPV por contravenir precisamente la doctrina jurisprudencial dictada por esta Sala sobre idénticas reclamaciones.

3.- La Proposición de Ley omite intencionadamente el necesario y fundamental análisis comparado previo sobre las condiciones que, de cara al acceso a la jubilación anticipada, marcan los criterios de la negociación colectiva del personal empleado público. No todo el personal público tiene la posibilidad de acceder a la jubilación anticipada a la edad de 60 años. Tampoco todo el personal que tiene esa posibilidad percibe idéntica cuantía de prestación por jubilación en el supuesto de optar por hacerlo anticipadamente.



Gainera, talde proposatzaileak ez du kontuan hartzen, aipatzen duen dataz geroztik, 2012ko urtarrilaren 1etik, akordio sektorialak lortu direla langileen ordezkariekin, negoziazio kolektiboaren markoan, zeinetan aintzat hartu diren, hain zuzen ere, langile publikoen erretiroaren inguruko zirkunstantzia guztiak, erretiro aurreratua hartzeko aukera, gehigarri edo kalte-ordainen kontzeptuagatik jaso beharreko prestazioaren zenbatekoa, e.a.

Además, el grupo proponente no tiene en consideración que, con posterioridad a la fecha que cita, el 1 de Enero de 2012, se han alcanzado acuerdos sectoriales con la representación de los y las trabajadores en el marco de la negociación colectiva, en los que se han tenido en cuenta, precisamente, todas las circunstancias que rodean a la jubilación del personal público, la posibilidad de hacerlo de forma anticipada, la cuantía de la prestación a percibir en concepto de primas o indemnizaciones, etc.

Ondorioz, langile publikoekin akordioak lortzea posible izan den eszenatokia desitxuratu egiten du lege proposamenak, eta modu larrian oztopatu eta baldintzatzen du negoziazio kolektiboa Funtzio Publikoaren esparruan.

En consecuencia, la propuesta normativa distorsiona un escenario en el que ha sido posible alcanzar acuerdos con la representación del personal empleado público, e interfiere y condiciona, de una manera grave, la negociación colectiva en el ámbito de la Función Pública.

4.- Lege proposamena ez da errealista, langileen esparruan, gastu publikoaren irizpideak konprometitzen dituelako, eta horren gaineko kontrol zorrotza eta xehea egiten du Estatuko Administrazio Orokorreko organoek autonomia erkidegoko Administrazioak hartzen dituen erabaki guztiei dagokienez, bereziki, gastu-araua derrigorrez betetzeari dagokion guztian.

4.- La Proposición de Ley carece de realismo porque compromete los criterios de gasto público en materia de personal cuyo control mantienen de forma detallada y exigente los órganos de la Administración General del Estado respecto de la totalidad de las decisiones que toma la Administración de la Comunidad Autónoma, en especial en todo lo que se refiere al cumplimiento preceptivo de la regla de gasto.

Orain leheneratu nahi den neurria oinarrizko premisa batetik hartu zen: gastu publikoa eusteko politika hartzea, krisi ekonomikoaren ondorioz, gastu eta zor publikoa nabarmen igotzen ari ziren testuinguruan. Neurri hori eta beste antzeko batzuekin hasitako finkapen fiskaleko prozesuak jarraitzen du, gaur egun, oraindik. Horren froga da, aipatu neurria errepikatu egin dela, ezarri zenetik, Eusko Legebiltzarrak onartutako aurrekontu legeetan. Orain, kalte-ordaineko prestazio hau atzeraeraginezko efektuekin berreskuratzeak gastu publikoa gehiegi

La medida que ahora pretende revertirse fue adoptada a partir de una premisa fundamental, cual fue la asunción de una política de contención del gasto público en un contexto de considerable incremento del déficit y el endeudamiento públicos como consecuencia de la crisis económica. El proceso de consolidación fiscal emprendido con la adopción de ésta y otras medidas análogas todavía continúa en la actualidad, como lo prueba el hecho de que la medida en cuestión ha sido reiterada en las sucesivas leyes de presupuestos aprobadas por el



igotzea ekarriko luke, eta ondorioz, etendurak zuen gastua eusteko xedea ezeztatuko luke erabat.

Parlamento Vasco desde su implementación. La recuperación, ahora, de esta prestación indemnizatoria con efectos retroactivos conllevaría un aumento exorbitado del gasto público, que anularía por completo el objetivo de contención perseguido con su suspensión.

5.- Azkenean, ekimenak nahi duen atzeraeraginezko efektuekin onetsiko balitz, proposatutako neurriak konparaziozko bidegabekeria bikoitza sortuko luke.

5.- De ser finalmente aprobada con la eficacia retroactiva que la iniciativa le pretende imprimir, la medida propuesta generaría un doble agravio comparativo.

Alde batetik, diskriminatzailea izango litzateke krisi ekonomikoaren eragina izan zuten erkidegoko sektore publikoko langileen beste lan-baldintza batzuekin. Eta egoera ekonomikoaren hobekuntzaren ondoriozko diru-sarrera publikoen hazkuntzak horiek berrezartzeko aukera eman badu ere – horien artean, langile guztien artean, eragin homogeneoa dutenez, nabarmendu daitezke ordainsarien igoera, Itzarri BGAEren ekarpenak berriz abiaraztea, edo soldataren % 100 ordaintzea aldi baterako ezintasunaren lehen egunetik-, bat ere ez da atzeraeraginezko efektuekin berrezarri.

Por un lado, supondría una discriminación con respecto a otras condiciones laborales de las y los empleados públicos del sector público autonómico que fueron, también, afectadas por la crisis económica y que, si bien el aumento de los ingresos públicos propiciado por la mejoría de la situación económica ha permitido restablecer -entre las que cabe destacar por su proyección homogénea sobre sobre la totalidad de la plantilla, el incremento de las retribuciones, la rehabilitación de las aportaciones a la EPSV Itzarri o la recuperación de la percepción del 100 por 100 de las retribuciones desde el primer día en los supuestos de incapacidad laboral transitoria- ninguna lo ha sido con carácter retroactivo.

Bestalde, atzeraeraginez aplikatuko balitz, konparaziozko bidegabekeria ekarriko luke unibertitateaz kanpoko irakasleen kolektiboaren barruan, erretiroko gehigarria jaso ez duten urteetan zehar, langile batzuek erabaki egin dutelako lanean jarraitzea eta herritarrei zerbitzua ematen. Klase pasiboetara igarotzea, erretirorako adinaren aurretik, erabaki duenak erretiro gehigarri esanguratsua jasotzeak, jaso beharreko ordainsarian murrizketarik eduki gabe, ekidin

Por otra parte, su aplicación retroactiva supondría igualmente un agravio comparativo dentro del propio colectivo de personal docente no universitario, ya que, durante los años en los que no ha tenido lugar la percepción de la prima de jubilación, ha habido personal que ha optado por mantenerse en activo y continuar prestando servicio a la ciudadanía. La percepción de una cantidad importante como prima de jubilación por parte de quien ha optado por su incorporación a las clases pasivas



beharreko tratu desberdina ekarriko luke, ez baitauka arrazoi objektibo eta arrazoizkorik.

antes de la edad de jubilación sin merma ninguna en la retribución a percibir, supondría un trato desigual que, por carecer de justificación objetiva y razonable, debiera evitarse.

6.- Talde proposatzailearen ekimena demagogikoa da, nahita, atzeraeraginezko efektuekin ezarriko balitz milioi askoko inpaktu ekonomikoa izango lukeelako eta langile-politiken kudeaketa osoa zamatuko lukeelako. Erretiro aurreratuaren gehigarri eta kalte-ordainak ordaintzeko erabili beharko zen gehiegizko diruzenbatekoak arrisku larrian jarriko luke langile guztien edo talde garrantzitsu baten lan-baldintzak hobetzeari begirako beste neurri batzuk adostu ahal izatea langile publikoen ordezkariekin, adibidez, Itzarriren ekarpenak igotzea, baimenak igo eta parekatzea, edo Administrazio Orokorreko eta Justizia Administrazio lan-kontratudunen lanpostuen balorazioa.

6.- La iniciativa del grupo proponente es intencionadamente demagógica porque su implementación con efectos retroactivos supondría un impacto económico multimillonario que lastraría toda la gestión de políticas de personal. La exorbitante cifra que debiera destinarse a hacer frente al abono de las primas e indemnizaciones por jubilación anticipada, comprometería seriamente la posibilidad de acordar con la representación del personal empleado público otras medidas encaminadas a mejorar las condiciones laborales de la totalidad o de un colectivo importante de la plantilla como, por ejemplo, el incremento de las aportaciones a Itzarri, el aumento y equiparación de los permisos o la valoración de puestos del personal laboral de la AG y personal al servicio de la Administración de justicia

Bigarrena.- Betetzat jotzea Eusko Legebiltzarraren erregelamenduaren 148.2 artikuluan aurreikusten den izapidea, eta erabaki honen berri Legebiltzarrari ematea”.

Segundo.- Dar por cumplimentado el trámite previsto en el artículo 148.2 del Reglamento del Parlamento Vasco y comunicar el presente Acuerdo a la Cámara”.

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 2an.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 2019.